

IÑAKI ARRATIBEL OLAZIREGI, HAMAIKABAT Udal Taldeko bozeramaileak 2012 AURREKONTUei ondorengo osoko zuzenketa aukezten du Udal Batzak onar dezan.

Luzera joko duen krisi ekonomikoak aurrekontu zuhurrak egitera behartzen gaitu. Gastu eta sarrerak oso ondo aztertu behar dira datozen urteetako aurrekontuek gorabehara haundiak izan ez dezaten. Gure ustez aurrestia da gakoa. Gastu arruntak aurresteko gaitasuna erakusten badugu Udaleko kontuak pairatzen dugun krisia gaindituko dugu. Lortzen ez badugu udalak etorkizun beltza izango du.

Alkateak aurkeztu digun 2012 aurrekontu proiektua ez da aurrestian oinarritzen. Pertsonal atalean %6,36 igoera aurrikusten da, 478.374 euro gehiago. Egungo egoeran igoera horrek ez dauka zentzurik. Plantilari %3a igoko zaio, bainan ez deneri, 21 mailatik gora kanpo geratzen dira. Gai honetan Gobernu taldeak bere liberatu ta erdi liberatuekin jarraituko duen irizpide politikoa jakin nahiko genuke. 2012rako inflazioa %1'5 aurrikusten denean Hernaniko Udalak %3a aplikatzea zentzugabekeria da.

Pertsonaleko partidarekin jarraituz ulertezina da pertsonalean %6,36 gehiago gastatzea, 478.374€ gehiago, mailegua berriz 560.000€koa izango da. Datu hauekin maileguaren zati eder bat langileen politika finantziatzeko erabiliko dela esan daiteke. Udal Gobernuak ez ditu lanak behar bezala egin, ajolagabekeriaz ari da.

Gobernu taldeak soilik 156.454 euro aurresteko gaitasuna erakutsi du. Aurresteko beharra seriotasun pixkabatekin hartu izan balitz, batez ere pertsonal atalean, maileguaren beharra zalantzazkoa izan liteke edo inbertsioa haunditzeko aukera izango genuke.

Inbertsioekin jarraituz, urtarrilaren 3an alkateari zuzenduta datu osagarriak eskazten genituen. Hoiien artean hirigintza eta ingurumena sailean Ikerketa, azterketa eta proiektuak partidaren zehaztapena. Ez zaigu erantzun ta partida horretako 128.656 € zertzan gastutuko diren jakin gabe geratzen gara, behar bada aitortzezinak izango dira.




Gardentasun falta ere atez ateko hainbat gastu partidarekin ere gertatzen da. Partida hau, urte batetik bestera, 10.000 €tik 100.000€tara igo da. Igoera honen arrazoiak eskatu ditugu ta ez dugu erantzunik jaso.

Gardentasun faltaz aparte datu sinesgaitzak ere badaude. Iaz atez ate bilketa sistemarekin 2.000.000 gastatu genuen, aurrekontuan berriz 1.850.000 €koa izango dela aurrirakusten da. Datu hauek ez ditugu sinisten ta jarraipen zorrotza egingo dugu. Gai honekin jarraituz ere Garbitania Zero Zabor SMK inguratzen duen obskurantismoa ere aipatu nahiko genuke. Hernaniko Udalak %49a duen enpresa publiko honen datuak eta prozedimentuak behin eta berriz eskatu ditugu. Kontrolik gabeko enpresa publikoak, Garbitaniako 2011 ta 2012ko urteko kontuak jasotzeko zai gaude, ez dira bidezkoak. Atez ate bilketak horrelako zulo beltzak dituen bitartean aurkezten diren diru sarrera ta gastuak sinesgaitzak dira.

Jakin berri dugu Gipuzkoako zerga bilketak 2011an aurrirakusitakoa baino dexente gutxiago izango dela. Udalak Foru Aldundiari itzuli behar diona aurrekontuan agertzen dena baino gehiago izango da, batzuen esanetan ia %50 gehiago. Igoera hori eurotan 400.000koa izan daiteke. Gai al da Hernaniko Udala ezbehar horrerri aureko egiteko? Aurrekontu hauekin ez.

Aurrekontu hauek ez dira Hernanik behar ditunak. Emandako arrazoiengatik bere itzulera eskatzen dugu ta aldi berean Alkateari beste proiektu bat aurkeztu desala.



Hernani, 2012ko urtarrilaren 19an



hamaikabat
Iñaki Arratibel Olaziregi
HAMAİKABAT UDAL TALDEA